
munduak guztiontzat beharko luke
PAUSOKA ELKARTEA
Aimar gustura dabil kulunkan bere amaren laguntzarekin. Parean eseri zaio Ane Pirata, eta indarrez hasi da kulunkatzen, beti egiten duen bezala. Aimar algaraka hasi da. Baina, Ane, bat-batean, larritu egin da pixka bat.
BARKATU, BARKATU...
BARKATU, ZERGATIK? AIMAR ALGARAKA JARTZEAGATIK?


EZ NAIZ KONTURATU EZIN DUELA...
AIMARREK, LAU URTE DITUEN ARREN, ORAINDIK EZ DU IKASI IBILTZEN ETA HITZ EGITEN. BAINA ONDO PASATZEN ASPALDI IKASI ZUEN!


BELDUR NAIZ MIN EMAN OTE DIODAN
BENETAN MIN EMANGO DIOZU, EZ BAZARA BERAREKIN JOLASTEN


ZER GERTATZEN ZAIO?
BERE BURUAK EZ DIZKIO AGINDU EGOKIAK GORPUTZARI BIDALTZEN, ETA BESTEEI BAINO GEHIAGO KOSTATZEN ZAIO GAUZA BATZUK EGITEA


GAINONTZEKOEI BAINO GEHIXEAGO KOSTATZEN ZAIO GAUZAK IKASTEA, BAINA LANGILEA DA OSO ETA EZ DA ERRENDITZEN. GOIZEAN ESKOLARA JOATEN DA ETA ARRATSALDEAN PAUSOKAKO ZENTROAN LAN ASKO EGITEN DU.
EMANGO DIOT OGITARTEKO PUSKA BAT?


BAI, NOSKI, TRIPONTZI BAT DA. JANARIA ETA MUSIKA DIRA BERE PASIOAK
NI BEZALA ORDUAN!







PAUSOKA elkartea

Pausoka Elkartea beharrizan bereziak dituzten haurren guraso talde batek sortu zuen 2012ko martxoan. Hernanin areto bat moldatzen ari dira haurrentzat errehabilitazio zentro egoki bat prestatzeko.



Beharra duten familia guztien eskura jarri nahi dute zerbitzua; beharrizan bereziak dituen haur bakoitzak behar duen zerbitzu guztiak jaso ditzan, eta ez bakarrik ahal dituenak.



Pausoka Elkartea
Florida 9 Bajo
20120 Hernani, Gipuzkoa
Tel: 666839993
Emaila: pausokaelkartea@gmail.com